

euskararen egoera ulertzeko gakoak



hamaika



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Bideo-sortaren izenburua:

GAKOAK.

Euskararen egoera ulertzeko gakoak.

Idea:

Iñaki Uribe, Hamaika Telebista.

Bideo kopurua:

11'

Gidoia:

UEMA.

Ekoizpena:

Nagore Sarasola, Hamaika TB.

Ahotsa: Irati Odriozola, UEMA.

Data: 2025eko martxoa.

Ikusgai:

hamaika.eus eta uema.eus

euskararen egoera ulertzeko
gakoak



Euskararen egoera ulertzeko gakoak, hamaika bideo laburretan bilduta

Iñaki Iurrebasoren tesian bildutako gakoak euskararen egoera ulertzeko giltzarriak direlakoan, horiek modu dibulгатiboan ezagutarazteko hamaika bideo laburreko sorta aurkeztu dute UEMAK eta Hamaika Telebistak. Gaurtik aurrera izango dira ikusgai Gakoak saileko lehen bideoak.

2025eko martxoaren 26a

Iñaki Iurrebaso soziolinguistak eta UEMAKo ikerlariak euskalgintzaren eta hizkuntza politikaren oinarriak astindu zituen doktore tesia aurkeztu zuen 2023an. Euskararen benetako egoera ezagutzeko eta diagnostiko zehatzagoa egiteko hainbat giltzarri biltzen ditu tesiak, eta horiek ezagutarazteko dozenaka hitzaldi antolatu zituen iaz UEMAK, udalekin eta herrietako euskara elkarteekin batera. Zehazki, iaz 40 hitzaldi eman zituen Iurrebasok: 26 tokian tokiko udalekin eta euskara elkarteekin antolatuta, eta beste 16 hainbat arlotako gizarte eragileei tesiaren nondik norakoak aurkezteko.

Euskaltzaindiak, berriz, pasa den abenduan argitaratu zuen tesia, bere horretan, eta Sabino Arana fundazioarekin batera jardunaldia ere antolatu zuen geroago, tesiak dakarren ikuspegi berriaz hausnartzeko eta ondorioez hitz egiteko.

Tesia modu erraz eta dibulгатiboan zabaldu nahian, elkarlanean aritu dira azken hilabeteotan UEMA eta Hamaika Telebista, eta gaur aurkeztu dute emaitza: hamaika bideo laburreko sorta, azken urteotako ikerketek nabarmentzen dituzten gakoien inguruan. GAKOAK izenburupean, euskararen egoera azaltzeko eta saretan zabaltzeko hamaika bideo dira. Bakoitza bi minutu ingurukoa.

Hamaika Telebistako zuzendari ohi Iñaki Uriaren hasierako ideari tiraka, UEMA arduratu da bideoen gidoiez eta edukiaz. Irudiak eta animazioak, berriz, Hamaika Telebistako Nagore Sarasola diseinu arduradunak sortu eta ekoitzi ditu, edukia ahalik eta modu ikusgarrienean eta hezitzaileenean erakutsi ahal izateko.

Gaurtik aurrera, astean bi bideo zabalduko dituzte UEMAK eta Hamaika Telebistak, asteazkenetan eta larunbatetan, eta azkenengoa zabaldu ondoren guztiak batera izango dira ikusgai UEMAKen eta Hamaikaren webguneetan, apirilaren 30etik aurrera.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



GAKOAK saileko bideoak gaur aurkeztu dituzte Ainhoa Jauregi Hamaika Telebistako zuzendariak eta Martin Aramendi UEMAko lehendakariak, Hamaika Telebistaren Donostiako egoitzan egin duten agerraldian.

UEMAko lehendakari Martin Aramendik adierazi duenez, azken urteotan asko aldatu da euskaldunen profila: “Hezkuntzak milaka herritar euskaldundu ditu, baina horietako askorentzat euskara ez da lehen hizkuntza. Horrek, noski, eragina du erabileran. Beraz, horri erantzunez, eta ezagutzaren eta erabileraren aldea murriztu nahian, herritarren kontzientziazioan eragitea da UEMAren ildo nagusietako bat azken urteotan”.

Aramendik nabarmendu duenez, “horretarako giltzarria da euskararen egoera argi eta garbi ikusaraztea, eta Iñaki Lurrebasoren tesia gakoa da horretan. Aurkeztu du dozenaka hitzalditan, hedabideetan egin dizkiote elkarrizketak, mila orrialdetik gorako bi liburukitan ere argitaratu du Euskaltzaindiak, baina nahi genuen publiko orokorrak eta batez ere gazteek modu dibulgatibo batean ere jasotzeko aukera izatea, eta hau da emaitza. Iñaki Uriaren hasierako ekimena eskertu nahi dugu, eta baita Hamaika Telebistak egin duen lana ere. Nagore Sarasolak egundoko lana egin du edukia ikus-entzunezko garaikide eta hezitzaileetara ekartzen, eta oso gustura eta benetan eskertuta gaude emaitzarekin. Belaunaldi berriak ahalduntzea da helburuetako bat, eta horretan ahalegindu gara bideo hauekin”.

Hamaika Telebistako zuzendari Ainhoa Jauregik adierazi duenez, berriz, “garai berrietara egokitzea da Hamaikaren helburu nagusietako bat. Testuingurua izugarri aldatu da, eta ezinbestekoa da eremu digitalean egotea eta belaunaldi berriekin konektatzea, beti ere euskara erdigunean jarrita. Horretarako, material ederra da hamaika bideoa sorta hau. Batetik, euskararen egoera ulertzeko gakoak eskaintzen ditu, eta bestetik belaunaldi berriekin konektatzeko eta sare sozialetan zabaltzeko moduko edukia da: laburra, hezitzailea eta garaikidea”.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



Hamaika bideoen edukia

Hauek dira Hamaika Telebistak eta UEMAK elkarrekin landutako GAKOAK sortako bideoak, izenburuarekin eta bi hitzetan laburtutako edukiarekin.

- 1. Diagnostiko berri baterako gakoak.** Euskararen egoeraz jabetzeko bidaia laburra.
- 2. Azken mendeko euskararen historia.** Gainbehera, indarberritzea eta geldotze aroa.
- 3. Hizkuntza-gaitasuna.** Hamabi lagunetik batek egiten du errazago euskaraz.
- 4. Erabilera.** Asko erabiltzen da euskara, dagoen gaitasunerako.
- 5. Atxikimendua.** Euskararekiko jarrera positiboa daukagu euskaldunok.
- 6. Hizkuntza bilakaera.** Indartsuagoa da erdalduntzea euskalduntzea baino.
- 7. Galeraren arrazoiak.** Botere egiturek euskara ahultzen dute.
- 8. Belaunaldi berriak.** Gurasoak baino euskaldunago datoz haurrak.
- 9. Lurraldea eta nagusitasuna.** Testuinguruak ez dira neutroak.
- 10. Arnasguneen garrantzia.** Euskara arnasmunikatze gabe geratzeko bidean doa.
- 11. Etorkizunari begira.** Olatu berri baten beharra du euskarak.

GAKOAK aletuz, sakonago

Hamaika bideo hezitzaile eta labur horien osagarri, beste hamaika bideo ere prestatu ditu UEMAK, bideo bakoitzaren edukia sakonago azalduz, Iñaki lurrebaso beraren ahotan.

Kasu horretan, **Gakoak ALETUZ** da bildumaren izena, eta 15-20 minutuko bideoak dira. Gaian zehatzago sakondu nahi dutenentzat berariaz pentsatutakoak eta prestatutakoak dira.

Horiek guztiak ere ikusgai izango dira, Hamaika Telebistak ekoiztutako bideo laburrekin batera, apirilaren 28tik aurrera, denak batera.

Irailean, berriz, *Esnatu ala hill!* (Elkar, 2025) saiakera aurkeztuko dute Iñaki lurrebasok eta Garikoitz Goikoetxeak, diagnostiko berrirako gakoak ez ezik, euskaren eta hizkuntza politikaren erronkak ere aletuz.

Diagnostiko berri baterako gakoak

Euskararen egoeraz jabetzeko bidaia labur bat proposatzen du bideo sorta honek. Euskararen galera eta biziberritza iaztertzen ditu. Baita gaur egungo geldialdi egoera ere.

Egoera bere horretan ezagutzeko, ezinbestekoa da diagnostiko berri egitea, azken ikerketa guztiak kontuan hartuko dituen. Izan ere, aldagai garrantzitsu berriak mahai-gaineratu dira azken urteotan: hizkuntza-gaitasuna, esaterako. Euskaldunak izan arren, herritar asko ez dira gai euskaraz lasai aritzeko. Ez dira gai erdaraz bezain trebe eta eroso euskaraz hitz egiteko.

Euskararen aldeko atxikimendua eta jarrera, aldiz, oso positiboa da euskaldunen artean. Horri esker egin du euskarak aurrera urte askoan. Atxikimendu hori, ordea, ez da nahikoa. Atxikimenduak bakarrik, besterik gabe, ez du ekarriko euskara indartzea.

1

Izenburua:

Diagnostiko berri baterako gakoak.

Gaia:

Euskara gaur egungo egoerara nola iritsi den

Iraupena:

02:08

Ideia:

Iñaki Uribe.

Gidoia:

UEMA.

Ekoizpena:


Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-03-26.



Azken mendeko euskararen historia

Gainbehera, indarberritzea eta geldotze aroa

Azken mendean euskararen bilakaera zein izan den aztertzen da bideo honetan. Horretarako, haurrek etxean jaso duten hizkuntza aztertzen da, datuen argitan. Ea gero eta gehiagok ala gutxiagok jaso duten euskara. Ondorioa, argia da: XX. mendean euskara indarra galtzen joan da Euskal Herriko etxeetan. Arrazoi nagusiak biltzen ditu bideo honek.

Galera prozesuan, ordea, izan zen salbuespen aldi bat: Euskal Pizkundea. Hori indarrez zapuztu zuen frankismoak, euskara debekatuta eta jazarrita. Aurre eginez, 1960ko hamarraldian euskara batua, ikastolak, gau eskolak, euskal kantagintza berria eta beste ekimen asko sortzen eta hedatzen joan ziren, eta horrekin batera gurasoek etxean gero eta gehiago aukeratu zuten euskara. Indarberritze fase horrek XX. mendea bukatu arte jarraitu zuen, baina moteltzen hasi zen XXI. mendean sartzearekin batera.

2

Izenburua:

Azken mendeko euskararen historia.

Gaia:

Gainbehera, indarberritzea eta geldotze aroa.

Iraupena:

02:49

Idea:

Iñaki Uribe.

Gidoia:

UEMA.

Ekoizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-03-26.



3

Izenburua:

Hizkuntza-gaitasuna.

Gaia:

Hamabi lagunetik batek egiten du errazago euskaraz.

Iraupena:

02:10

Ideia:

Iñaki Uria.

Gidoia:

UEMA.

Ekoizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-02.

Hizkuntza-gaitasuna

Hamabi lagunetik batek egiten du errazago euskaraz

Euskaldun denak ez dira berdinak hizkuntza-gaitasunari dagokionez. Justu samar aritzen dira batzuk eta beste batzuk, aldiz, erraz asko. Herritar bakoitzaren hizkuntza-gaitasuna determinantea da euskara ala erdara erabiltzeko garaian. Baina herritar guztiak kontuan hartuta, 12 lagunetik bakarra ari da errazago euskaraz. Euskal herritarren %8a. 210.000 hiztun guztira. Horiek dira egunero euskara erabiltzeko joera handiena dutenak. Horien aurrean, hamar aldiz gehiago dira euskaraz baino errazago egiten dutenak erdaraz. Eta gehienek, gainera, erdaraz bakarrik dakite. Nahita ere ezin dute egin euskaraz. Hizkuntza-gaitasunari begiratuta, beraz, oso ahul dago euskara.

Azken 30 urteotan asko hazi da elebidunen multzoa, baina ez da handitu euskaraz errazago egiten dutenen kopurua. Horrek eragin zuzena du erabileran.



Erabilera

Asko erabiltzen da euskara,, dagoen gaitasunerako

Euskal Herriko kaleetan entzundako 8 elkarrizketetatik bat da euskaraz. Gainerako 7ak erdaraz dira. Euskaraz dakiten herritarrak %30 dira, baina erabilera askoz ere txikiagoa da: %13k erabiltzen du euskara erdara baino gehiago.

Euskaraz errazago egiten duten euskaldunek ia erabat egiten dute euskaraz horretarako aukera dutenean. Horien ondoan, deigarria da erdaraz euskaraz baino errazago egiten duten elebidunen portaera: hauek ere gehiago jotzen dute errazago egiten duten hizkuntzara, erdarara, baina euskaraz aritzeko aukera duten egoeretan, askok euskarari heltzeko hautua egiten dute, erdaraz hobeto aritu arren. Euskararen erabilera, ondorioz, dezente handiagoa da hiztun-gaituen kopuruak eman zezakeena baino. Beraz, dagoen gaitasunerako euskara asko erabiltzen da gaur egun. Gaitasunak berez ekarriko lukeena baino handiagoa da erabilera.

4

Izenburua:

Erabilera.

Gaia:

Asko erabiltzen da euskara, dagoen gaitasunerako.

Iraupena:

02:07

Ideia:

Iñaki Uria.

Gidoia:

UEMA.

ekoizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-05.



Atxikimendua

Euskararekiko jarrera positiboa dute euskaldunek

Euskaldunok eta euskal herritar askok, lotura estua eta atxikimendu handia dugu euskararekiko. Jarrera positiboa dugula erakusten dute ikerketek. Ikerketek bakarrik ez. Historia hurbilak ere erakusten digu hizkuntzarekiko lotura berezia dutela euskal herritarrek. Beste hizkuntza gutxiagotu gehienetan baino mugimendu indartsuagoa garatu izan da gurean hizkuntzaren alde.

Ehunka ekimen sortu dira eta egiten dira euskararen alde: eskolak, euskaltegiak, aldizkariak, egunkariak, irratiak, kultur taldeak... Euskararen aldeko aldarrikapen eta ospakizunek ere erantzun eta atxikimendu handia dute.

Euskararen aldeko jarrera horrek eragina du gero hitzunen erabakietan eta hitzun asko dira berez erdaraz errazago egin arren, euskara erabiltzen dutenak. Herritar askoren euskararen aldeko jarrera hauxe da euskarak duen indargunerik nagusiena.

5

Izenburua:

Atxikimendua.

Gaia:

Euskararekiko jarrera positiboa dute euskaldunek.

Iraupena:

02:00

Ideia:

Iñaki Uria.

Gidoia:

UEMA.

Ekoizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-09.



Beste hizkuntza gutxiagotu gehienetan baino mugimendu indartsuagoa garatu izan da gurean

Hizkuntza bilakaera

Indartsuagoa da erdalduntzea euskalduntzea baino

Pertsona baten bizitzan aldaketa linguistiko esanguratsuak gerta daitezke. Txikitan ikasitako hizkuntza ahaztu dezakegu, beste hizkuntza batzuk ikasi, edo lehenago erabiltzen ez genuen bat erabili nagusiki. Pertsona bakoitzak bere ibilbidea egiten du, jakina. Baina gizarte batean ibilbide horiek gehiago alde batera edo bestera gertatzen diren jakiteak hizkuntza bakoitzaren indarraren berri emango digu.

Etxean euskara jaso zutenen multzoa hartzen badugu, ia guztiek ikasi dute eta erabiltzen dute beste hizkuntza bat. Hizkuntzaren erabilera ere norabide horretan aldatzen da: etxean euskara jaso zuten hiztun askok erdara erabiltzen dute gaur egun. Alderantziko joera ordea, apalagoa da. Salbuespenak dira.

Hizkuntza ekosistemak euskara higatu eta galarazi die etxean euskara jaso zuten askori.

6

Izenburua:

Hizkuntza bilakaera.

Gaia:

Indartsuagoa da erdalduntzea euskalduntzea baino.

Iraupena:

02:07

Ideia:

Iñaki Uria.

Gidoia:

UEMA.

Ekizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-12.



Galeraren arrazoiak

Botere egiturek euskara ahultzen dute

Indartsuagoak dira erdalduntzea bultzatzen duten faktoreak. Batetik, egoera soziolinguistikoaren eraginagatik: hiztun gehienak erdaldunak dira, eta erdara nagusi den eremuetan bizi dira. Inertzia handiak daude euskaldunak erdalduntzea eragiten dutenak, eta aldiz, apenas dago joerarik erdaldunak euskalduntzera bultzatzen duenik.

Bestetik, botere egiturak daude, eta hauek ere erdalduntzea indartzen dute. Euskararen aldeko politikak euskalduntzearen alde egin arren zenbait lurraldetan, oro har, erdaren nagusitasuna nabarmena da lurralde osoan.

Lan merkatuan ere, gaztelania eta frantsesa ezinbesteko hizkuntzak dira ia kasu guztietan. Euskara, batzuetan bakarrik. Hedabideetan, pantailetan eta kultur kontsumoan ere askoz handiagoa da erdarazko eskaintza.

Honek guztiak eragiten du erdalduntze prozesuak indartzea eta euskalduntze-prozesuak trabatzea.

7

Izenburua:

Galeraren arrazoiak.

Gaia:

Botere egiturek euskara ahultzen dute.

Iraupena:

02:24

Ideia:

Iñaki Uria.

Gidoia:

UEMA.

Ekizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-16.



Belaunaldi berriak

Gurasoak baino euskaldunago datoz haurrak

Ahalegin handia egin du herri honek euskalduntzearen alde eta bereziki haurrak euskaldun hazteko. Bai etxean eta baita eskolan ere. Belaunaldi berriekiko ahalegin hau berezia da gurean. Hizkuntza askok honetantxe dute arazoa etorkizunera begira: gurasoek hizkuntza menderatzailea transmititzen diete ondorengoei bertakoa baztertuta. Eta jakina, belaunaldi berriek hizkuntza ikasten eta erabiltzen ez badute honek ez dauka etorkizunik.

Duela 50 urtetik hona, guraso euskaldun gehienek ahalegina egiten dute seme-alabak euskaldun hazteko, eta euskaldunak ez diren guraso asko ere saiatzen dira seme-alabak euskalduntzen, irakaskuntzan eredu euskaldunak aukeratuz. Datu guztiak bat datoz horretan: belaunaldi berriekin euskaraz aritzeko ahalegin berezia egiten dute euskaldun askok.

Orokorrean, beraz, gaur egungo haurrek euskara gehiago jasotzen dute etxean eta eskolan gurasoek jaso zutena baino.

8

Izenburua:

Belaunaldi berriak.

Gaia:

Gurasoak baino euskaldunago datoz haurrak.

Iraupena:

02:15

Ideia:

Iñaki Uribe.

Gidoia:

UEMA.

Ekizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-19.



Lurraldea eta nagusitasuna

Testuinguruak ez dira neutroak

Soziolinguistikoki oso ezberdinak diren lurraldeetan bizi dugu euskara: euskarak pisu oso txikia duen herriak daude, eta baita bizitzaren alor batzuetan euskara nagusi den herriak ere.

Testuinguruak ez dira neutroak: ingurune batzuk euskararen alde bultzatzen dute, eta beste batzuk erdararen alde. Bestela esanda, arnaguneetan euskaraz bizitzea, norabide berean doazen eskailera mekanikoetan gora egitea bezalakoa da; erdara nagusi den eremuetan euskaraz bizi nahi izatea, aldiz, kontrako norabidean datozen eskaileretan gora egiten saiatzea bezalakoa. Indar handia egin behar da eskailerak dakarren kontrako norabidea berdintzeko eta are handiagoa eskaileran gora egiteko.



Izenburua:

Lurraldea eta nagusitasuna.

Gaia:

Testuinguruak ez dira neutroak.

Iraupena:

02:17

Ideia:

Iñaki Uribe.

Gidoia:

UEMA.

Ekizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-23.



Arnasguneen garrantzia

Euskara arnasgunerik gabe geratzeko bidean doa

Euskara nagusi den udalerrietan edo euskara eta erdara pareko azaltzen zaizkigunetan euskal biztanleen 10etik bat bakarrik bizi bada ere, udalerrri hauetan bizi da euskara gehien erabiltzen duen hiztun multzorik handiena. Nolabait esateko, gaur egiten den euskara guztiaren zati handi bat, bostetik bi inguru, udalerrri euskaldun horietan egiten da. Gainera, bertako hiztunek eragin handia dute erdara nagusi den eremuen euskalduntzean ere.

Euskara indartsuago dagoen lurralde-eremu horrek berebiziko garrantzia du euskararen biziraupenerako eta garapenerako. Bilakaera-datuak, ordea, kezkatzeko modukoak dira: euskara nagusi den eremua txikitzen eta ahultzen ari da, eta gainbeherak ez du etenik.

Galerak abiadura berean jarraituz gero, hurrengo urteetan desagertu egingo dira arnasguneak. Horrek ahuldu egingo luke euskararen herria, eta eragin nabarmena izango luke euskararen biziberritzean.

10

Izenburua:

Arnasguneen garrantzia.

Gaia:

Euskara arnasgunerik gabe geratzeko bidean doa.

Iraupena:

02:15

Ideia:

Iñaki Uribe.

Gidoia:

UEMA.

Ekizpena:


Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-26.



Etorkizunari begira

Olatu berri baten beharra du euskarak

Gaur egun, minorizazio gorrian dago euskara. Bai gaitasunean, bai erabileran, bai transmisioan, bai hizkuntza-bilakaeran eta baita lurralde-nagusitasunean ere. Askoz gertuago gaude hizkuntza-heriotza egoera batetik euren lurraldean nagusi diren hizkuntzen egoeretatik baino, eta baita elebitasun parekide baten egoeratik baino.

Minorizazio gorri horrek, berarekin dakar ahultasun horretan sakontzen jarraitzeko joera. Argi dago: esku hartu ezean, euskararen aldeko politika sendorik gabe eta euskaltzale kontzienteen bultzadarik gabe, euskarak ahultzera joko du, hilzorian dauden hizkuntzen egoerara gerturatuz.

Indargune aipagarriak ere baditugu, ordea. Euskal Herriak jakin izan du euskalduntzearen aldeko olatu handiak eragiten, baita testuinguru zailenetan ere. Hori da XXI. mendeko euskaldunok dugun erronka: egoeraren larritasunaz jabetzea eta euskara pertsonalki, sozialki eta politikoki lehenetsiko duen olatua eratzea.

11

Izenburua:

Etorkizunari begira.

Gaia:

Olatu berri baten beharra du euskarak.

Iraupena:

02:10

Ideia:

Iñaki Uria.

Gidoia:

UEMA.

Ekizpena:

Nagore Sarasola,
Hamaika TB.

Ahotsa:

Irati Odriozola, UEMA.

Zabalkundea:

2025-04-28.





euskararen egoera ulertzeko
gakoak



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA